

berria.info

Inprimatzeko bertsioa

 [Inprimatu](#)

Barkoxek aurten eman duen *Xahakoa* pastoralaren kontakizun atal bat gogoan, barkoxtar andanak egin du II. Mundu Gerrako ihes egileen eta mugalarien ibilbidearen zati bat, Zuberoatik Nafarroara.

Iheslarien gomuta bideetan

Allande Sokarros.

Orain dela 60 urte inguru, Frantzia eta Europako Mendebaldearen zatirik handiena zangopilatu zuen aleman nazien erregimenari eta haren esku-makilei ihes, Zuberoatik Nafarroara igaro zirenek ez zuten eguraldi zoragarririk gozaten. Halakoa izan dute, aldiz, Barkoxeko hogeita hamar bat herritarrek eta Bortükariak elkarteko hogeita bat mendizalek, gerrako ihes egileen eta horien laguntzaile mugalarien gomuta urratsetan ibili direnak, agorrila honen 20an. Orain dela 60 urte, Barkoxetik pasatu ziren ihes egileek oso ibilbide luze eta arriskutsua zuten: Montori, Hauze, Ligi-Aterei eta Santa Graziko lurretatik igaro eta gero, mendirantz jo behar baitzuten muga haustera. Horiek gogoan, aurten Barkoxeko pastorean aktore edo laguntzaile izan direnek autobusez egin dute ibilbidearen zati handiena, Zakiako artzain txabolaraino. Han bai, mendiko zapatak jarrita, Eskantolako artzainolaren albotik pasatu dira, eta larrean gora egin dute. Binbaleta eta Kartxela mendien iparraldeko maldetan ardiek mendez mende eginiko xendak hartuz, berrogeita hamar ibiltzaileek Belaiko lepora jo dute.

Errazagoa izango zen Binbaletako mendatera igotzea, belardi larreak baitaude bertaraino. Ihes egile andanak halaxe egin zuen behin baino gehiagotan, naziek toki horretan metrailadoreak jarri zituzten arte. Gauzak horrela, mugalariak eta itzuri egiten zutenek Kartxelaren mendebaldeko hegian kokatua den Belaiko lepora jotzea beste aukerarik ez zuten. Hori egitean, haatik, arreta handiz ibili behar ziren, une batean Binbaletako lepoko metrailatzaileen begi bistan baitziren. Hortaz, gauaz ziren gertatzen mugara hurbiltze horiek eta Nafarroara pasatzeak. Gauaz, eta sarritan eguraldi txarrarekin ere.

Orain dela 60 urte, ihes egileak eta mugalariak ez ziren Belaiko lepoan gelditu, ingurune ederrak miresteko -nola egingo zuten, bada, gaua izaki?-, edo argazkiak ateratzeko. Hala egin dute, berriz, gomuta bideetan ibili direnek. Zuberoak eta Nafarroak bat egiten duten toki horretan, hain zuzen, beste barkoxtar bat ere zain zaukaten. Belai tontorra eta Sardekagaina mendiaren altzoan den Harlüzeta txabolako partzuer Etxebarne jauna hantxe zegoen, txakurra lagun zuela. Apur bat lehenago, Zakiako txabolan bere artzaintza aldia egiten zuen Gamere-Zihigako Coyos jauna ikusi zuten, ihes egindako ardi batzuen atzetik zebilela.

Belaiko mendatera iritsirik barkoxtar eta Bortükariak mendizale taldea bitan zatitu da. Pentsa ez zutela horrelakorik inondik inora ere egiten orain dela 60 urte ihes bideetan hemendik pasatzen zirenek. Ez ziren mendiaz gozatzeko garaiak, ezta horretarako baldintza egokiak ere... Haatik, larunbateko eguraldi oso ederra baliatu nahian, ibiltzaile batzuek Kartxela gainera jo dute. Handik, Binbaletako lepora jaitsi dira, eta ondoren, Urdaiteko garatera.

Kartxela mendiaren itzulia

Nafarroako lurretan sartu eta gero, Belaiko lepotik behera egin dutenek ere ihes egileen bide zehatza jarraitu dutenik ez da batere segur. Ezen, pentsatzekoa da lagun horiek Mintxateko artekaren behera egin zutela, Erronkari edo Zaraitzuko herrien alderat. Bazekiten, haatik, Francoren diktaduraren gau beltzean sartu berria zen Espainiako Guardia Zibilekin topo egiteko arriskurik bazutela. Alabaina, hori gertaturik ere, mugaz beste aldera berriz eramanak izateko zorte txarrik ez zuten pairatuko.

Arraroa egiten du, haatik, gogoan edukitzea diktadura itzel baten pean bizi zen herrialde batera pasatzea askatasunerako bide bakarretatik zutela II. Mundu Gerrako iheslariek. Horietatik asko, nazien barbariatik itzuri egin nahi zuten juduak ziren; beste batzuk, ordea, De Gaulle jeneralaren deiari erantzunda, *Frantzia Askeko* indarretan sartu nahi ziren jendeak ziren. Horiek bide luzea izango zuten oraino Erresuma Batura heltzeko... Gerorago, ihes bideetan, Zuberoako mugalarien laguntzaz Nafarroara eta Espainiara sartuko zirenak estatubatuar edo britainiar aire armadako militarrek izango ziren, horien hegazkinak alemanen kanoiek lurrera bota ondoren.

Ihes egile horiek denek, Belaiko lepoa igaro eta gero, bide luze eta oztopoz betetakoa zuten helbururaino heltzarren. 60 urte gerorago, euren urratsetan ibili direnek, berriz, Kartxela mendiari buelta besterik ez diote eman, bidezidor seinalatu bati goxo-goxo jarraituz. Horrela, Urdaiteko lepora apurtxo bat jaitsirik, Belagoako lautadara eta hango aterpetxera joatea soilik geratu zaie. Han, etxerat laguntzeko gisan, autobusak zain zituzten. Orain dela 60 urte, ingurune horietatik igaro ziren ihes egileek, ordea, ez zuten horrelako erosotasunik gozatu...